| *Izen-abizenak* *Nombre y Apellidos* | *Espedientea* *Expediente* | *Urtea* *Año* | *Matrikula* *Matrícula* | *Udalerria* *Municipio* | *Ebazpen Proposamena/Ebazpena* *Propuesta de Resolución/Resolución* |
|---|---|---|---|---|---|
| GARRASTAZU LASA SANTI | 3644 | 2008 | 5813-DKX | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| DIAZ ENCABO VIDAL | 3647 | 2008 | 9822-CMH | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| IRIONDO ANSOLA OIER | 3648 | 2008 | 7826-BMY | ELGOIBAR | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ALTOLAGUIRRE TRASOBARES AINHOA | 3649 | 2008 | 9185-DFD | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ARICHA MEHDI | 3650 | 2008 | NA-6202-AT | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ZIDAN JAIME | 3651 | 2008 | 0047-DMM | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| SILVAN GABILONDO JOSE RAMON | 3652 | 2008 | 9309-CYX | AIA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ERAUSKIN ETXENIKE LUIS | 3654 | 2008 | 6262-DPX | LEZO | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| GARCIA URANGA ASIER | 4765 | 2008 | 7252-DTV | DONOSTIA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ATUTXA ETXEBARRIA PILI | 5409 | 2008 | 3143-DFY | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| EIZAGUIRRE GARATE MARIA | 5467 | 2008 | SS-8349-AS | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ATUTXA ETXEBARRIA PILI | 5699 | 2008 | 3143-DFY | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| EDDARBI MOHAMED YASSIN | 6130 | 2008 | SS-5271-BH | GETARIA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| BALAZS ALEXANDRU FRANCIS | 6308 | 2008 | 1706-BYR | ERMUA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ZUBIALDE S.A. | 6393 | 2008 | 2756-GDV | AIZARNAZABAL | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| MARTINEZ GARRIDO FELIX | 6435 | 2008 | 4352-CTL | ASTIGARRAGA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| JORDA NOVO LEIRE | 6660 | 2008 | 5240-CVR | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ESPARZA AREITIOBIRITZINAGA GAIZKA | 6674 | 2008 | 2645-FJM | BARRIKA (BIZKAIA) | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| ATUTXA ETXEBARRIA PILI | 7699 | 2008 | 3143-DFK | ZARAUTZ | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| LETAMENDIA GALLEGO PEDRO | 8048 | 2008 | 6991-BCV | ERRENTERIA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |
| EIZAGUIRRE AROCENA JOSE | 8622 | 2008 | 2489-CYG | DONOSTIA | TRAFIKO EBAZPEN PROPOSAMENA PROPUESTA RESOLUCIÓN EXPEDIENTE DE TRÁFICO |

## ZIZURKILGO UDALA

*Zizurkilgo euskara jaso eta ikertzeko Bekaren baitan dagoen dirulaguntza emateko oinarriak.*

Alkateak 2008ko irailaren 29an emandako 194/2008 zenbakidun Dekretu bidez Zizurkilgo euskara jaso eta ikertzeko Bekaren deialdia eta berau arautuko duten oinarriak onartu zituen.

## AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

*Bases para la concesión de la ayuda económica que integra la Beca para recopilar y analizar el euskara de Zizurkil.*

Mediante Decreto de Alcaldía n.º 194/2008, de 29 de setiembre de 2008 se ha aprobado la convocatoria y las bases de la Beca para recopilar y analizar el euskara de Zizurkil.

Jarraian, oinarri hauek argitaratzen dira jendea jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Zizurkil, 2008ko irailaren 29a.—M.ª Angeles Lazkano Larrañaga, Alkatea.

(601) (10885)

ZIZURKILGO EUSKARA JASO ETA IKERTZEKO BEKAREN OINARRIAK

Zizurkilgo Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) garapenaren barruan, ezinbestekoa ikusi du Zizurkilgo lehengo hizkuntza-ondarea eta ondare horri dagokion etnografi arloa batera jaso eta datozen belaunaldientzako ispilu eta erreferentzia izango den azterlan bat herritarren eta euskaldun guztien esku jartzea.

Horretarako, ondorengo oinarriak argitaratzen ditu:

*1. Ikerlana.*

1.1. Ikerlana, euskaraz egin behar da, Euskaltzaindiak emandako arauen arabera, jatorrizkoa izan behar du (ez besteren baten kopia edo moldaketa) eta beste inon saritu edo argitaratu gabekoa. Dena dela, lehiaketa honetara proiektuaren txostena eta lan-eskema aurkeztuko dira eta epaimahaiak haiek begiratuta erabakiko du zein proiektu saritu eta garatu.

1.2. Ikergaia, Zizurkilgo Euskara izango da, bizirik dauden zizurkildarrik petoenek arruntki darabilten hizkera. Hori jasotzeko, Udalak berak eta epaimahaiak gomendatutako hainbat zizurkildar elkarrizketatuko da. Lana behar den bermatasunez egiteko beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa - kopurua epaimahaiak finkatuko du.

1.3. Ikerlanak, ondorengo atal hauek behintzat landu beharko ditu:

— Sarrera (helburuak, metodologia, egitura eta gisakoak).

— Zizurkilgo Euskararen euskalkiaren eta azpieuskalkiaren sailkapenak eta zehaztasunak.

— Jasotako hizkeraren (hizkeren) sailkapen eta azterketa zehatza euskalkia eta azpieuskalkia kontuan hartuta:

— Fonetika: Bokalak, kontsonanteak, azentua ...

— Morfologia: Izena (deklinabidea, erakusleak ...), aditza (trinkoak, laguntzaileak ...).

— Sintaxia.

— Lexikoa: Aldaerak, esaerak, esamoldeak, etab.

— Hizkuntza-tratamendua, hitanoa, berorikakoa ...; noiz erabiltzen diren/ziren, nortzuen artean erabiltzen diren/ziren ...

— Soziolinguistika: Euskararen erabileraren pertzepzioa, hiztunek duten iritzia (asko/gutxi hitz egiten den, lehen gehiago/gutxiago, etab.).

— Elkarrizketa bidez bildutako laginen tratamendua, etab.

— Ikerleak/ek ateratako ikerlanaren ondorioak, ikuspegi soziolinguistikoak eta etnolinguistikoak erabilita.

— Transkripzioen idazketak, horretarako ohikoak diren arauak kontuan hartuta egingo dira.

1.4. Aukeratzen den proiektuaren aurkezleak/aurkezleek, ondorengo hiru puntu hauek kontuan izanda egin beharko du/dute lana:

A continuación se publican las bases para general conocimiento y efectos.

Zizurkil, a 29 de setiembre de 2008.—La Alcalde, M.ª Angeles Lazkano Larrañaga.

(601) (10885)

BASES DE LA BECA PARA RECOPILAR Y ANALIZAR EL EUSKARA DE ZIZURKIL

El Ayuntamiento de Zizurkil, en el desarrollo del Plan General de Revitalización del Euskara, ha considerado imprescindible facilitar a los zizurkildarras y a todos los euskaldunes un análisis que recopile conjuntamente el anterior patrimonio-lingüístico y el ámbito etnográfico que corresponde a ese patrimonio, y que sea reflejo y referencia para las generaciones venideras.

Para ello, publica las siguientes bases.

*1. Trabajo de investigación.*

1.1. El trabajo se realizará íntegramente en euskara, de acuerdo con la normativa de Euskaltzaindia. Debe ser original (no puede ser copia o adaptación de algún otro), inédito y no premiado en ningún otro lugar. De todas formas, a este concurso se presentarán el informe y el esquema de trabajo del proyecto y el tribunal decidirá, en base e ello, cuál será el proyecto a premiar y desarrollar.

1.2. El tema será el Euskara de Zizurkil, el lenguaje que utilizan los zizurkildarras más auténticos. Para esta recopilación, se entrevistarán algunos zizurkildarras recomendados por el Ayuntamiento y el tribunal. El tribunal establecerá la cantidad mínima de entrevistas para realizar el trabajo con la garantía necesaria.

1.3. El trabajo abarcará, por lo menos, los siguientes aspectos:

— Introducción (objetivos, metodología, estructura y semejantes).

— Clasificación y características del euskara, dialecto y subdialecto vasco de Zizurkil.

— Clasificación de la forma de hablar (formas de hablar) recopiladas y análisis concreto de las mismas respecto al dialecto y subdialecto vasco:

Fonética: Vocales, consonantes, acento ...

Morfología: Nombre (declinación, demostrativos,), verbo (sintético, auxiliares, ...).

Sintaxis.

Léxico: Variantes, dichos, expresiones, ...

Tratamiento lingüístico, utilización de «hi», «berori», ...; cuándo se utilizan/utilizaban, entre quiénes se utilizan/utilizaban, ...

— Sociolingüística: Percepción del uso del Euskara, opinión de quienes lo hablan (si se habla mucho/poco, más/menos que antes, ...).

— Tratamiento de los datos recopilados en las entrevistas.

— Conclusiones que se sacan del estudio, desde el punto de vista sociolingüístico y etnolingüístico.

— La escritura de las transcripciones se realizará teniendo en cuenta las normas habituales.

1.4. El presentador/los presentadores del proyecto elegido tendrá/tendrán que realizar el trabajo en base a los siguientes tres puntos:

— Edukia zientifikoki azaldu: Dokumentatu, gaurkotutako metodologia adierazi eta erabili, agertuko dituen/dituzten datu guztiak eta bakoitza nondik jasoa den argi eta garbi zehaztu eta tesi zehatza eman.

— Ikerlana, material grafiko eta bibliografia zehatzez hornitu beharko da.

— Lana Euskara zuzen eta egokia erabiliz egin.

(Ikerlana epaimahaiak gainbegiratuko du).

*2. Parte-hartzaileak.*

2.1. Ikerketarako beka-deialdi honetan, bete beharreko baldintzak betetzen dituen edonork har dezake parte. Bakarka nahiz taldeka egin daitezke proiektua eta ikerlana, baina taldea aurkeztuz gero, taldeko arduraduna izendatu behar da, haren ezaugarriak baloratuko dira eta hark izango du lanarekin zerikusia duen guztirako ardura nagusia. Dena dela, taldea izanez gero, arduradunaz gainera, taldeko beste partaideek ere aipatutako gutxieneko baldintzak bete egin beharko dituzte.

2.2. Beka jaso ahal izateko, aurkezleek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Unibertsitateko ikasketak:

— Unibertsitateko Euskal Filologiako ikasketak egiten aritzea.

— Unibertsitateko erdi-mailako edo goi-mailako titulua izatea (Euskal Filologia, Magisteritzako Euskal Filologia adarra, Kazetaritza edo hizkuntzarekin harremana duten ikasketak).

— EGA edo baliokidea izatea.

— Hautaketa egitean, lehenetsi egingo dira txostenean eta lan-eskeman hizkuntza-gaiak ongi aztertzen eta euskaraz ongi idazten trebetasuna azaltzen dutenak.

*3. Aurkeztu beharrekoak.*

2008ko urriaren 24ko eguerdiko 12ak baino lehen aurkeztu beharko dira ondorengo agiriak gaitzizenez sinatuta:

— Proiektua. Zizurkilgo Euskara aztertzeko proiektua azaltzen duen txostenak ondorengo atalak nola garatzeko asmoa duen azaldu behar du:

a) Ikerketaren abiaburu teorikoak eta metodologiazkoak.

b) Ikerketaren aldia, lan-programa eta lan-egutegia.

c) Elkarrizketetarako galdera-sortak eta gidoiak.

d) Eskatzaileak/eskatzaileek dituen/dituzten baliabideak.

Bestelako agiriak aparteko kartazal itxian gainean gaitzizena idatzita:

— NA-kopia. Taldea izanez gero denen NA-kopiak.

— Curriculuma/ak eta agertzen diren merezimendu guztien egiaztagiriak. Egiaztagiririk gabe, merezimendurik ez da kontuan hartuko.

— Tituluen eta agirien kopiak.

— Harremanetarako datuak (posta-helbide osoa kode eta guzti, helbide elektronikoa, izanez gero eta telefono-zk.).

— Agiriak eta proiektuak helbide honetara bidali edota ekarri behar dira Udaletxeko sarrera-erregistroan sarrera emateko:

Zizurkilgo Euskara ikertzeko beka.
Zizurkilgo Udala.
Euskara Zerbitzua.
Aurrera Plaza 3.
20159 Zizurkil (Gipuzkoa).

— Explicar el contenido científicamente: Documentarlo, explicar y utilizar metodología actualizada, concretar claramente de dónde se han conseguido todos y cada uno de los datos que va/van a explicar.

— El estudio se completará con material gráfico y bibliografía concreta.

— El trabajo se realizará en Euskara correcto y adecuado.

(El estudio será revisado por el tribunal).

*2. Participantes.*

2.1. En esta convocatoria de beca para análisis podrá participar todo aquel que cumpla con los requisitos de la misma. El proyecto y el trabajo lo podrá realizar una sola persona o un grupo. En los grupos será necesario nombrar un responsable, serán las características de éste las que se valorarán y será él, el responsable principal del trabajo. Sin embargo todos los participantes, además del responsable, tendrán que cumplir los requisitos mínimos.

2.2. Para poder percibir la beca, los requisitos a cumplir por los participantes serán los siguientes:

— Estudios universitarios.

— Estar realizando estudios universitarios de Filología Vasca.

— Estar en posesión de titulo universitario de grado medio o superior (Filología Vasca, Rama de Filología Vasca de Magisterio, Periodismo o estudios relacionados con el idioma).

— Estar en posesión del EGA o equivalente.

— A la hora de realizar la elección tendrán prioridad quienes muestren aptitud en el informe y en el esquema de trabajo para analizar adecuadamente los temas lingüísticos y para una correcta escritura en euskara.

*3. Documentación a presentar.*

Se deberá presentar la siguiente documentación antes de las 12 del mediodía del 24 de octubre de 2008, firmada con un seudónimo:

— Proyecto. En el informe explicativo del proyecto para analizar el Euskara de Zizurkil se expondrá la forma en que se pretenden desarrollar los siguientes aspectos:

a) Orígenes teóricos y metodológicos del estudio.

b) Período, programa de trabajo y calendario del estudio.

c) Conjunto de preguntas y guiones para las entrevistas.

d) Recursos del solicitante/de los solicitantes.

El resto se deberá presentar en un sobre cerrado y en la parte exterior de él figurará el seudónimo:

— Copia del D.I. Si es un grupo, copia del D.I de todos.

— Curriculum y certificados de todos los méritos mencionados. Sin certificados no se valorará.

— Copias de los títulos y documentos.

— Datos de la persona de contacto (dirección completa –código postal incluido–, dirección electrónica si se posee y número de teléfono).

— Las documentaciones y los proyectos se enviarán o presentarán en esta dirección para dar entrada en el registro del Ayuntamiento:

Beca para analizar el Euskara de Zizurkil.
Zizurkilgo Udala.
Euskara Zerbitzua.
Aurrera Plaza 3.
20159 Zizurkil (Gipuzkoa).

*4. Epaimahaia eta proiektuak baloratzeko irizpideak.*

4.1. Epaimahaia, ondorengo jaun-andreek osatuko dute:

— M.ª Angeles Lazkano Larrañaga, Zizurkilgo Alkatea.

— Gotzon Aurrekoetxea, Dialektologoa.

— Ainhoa Larrea Unzain, Zizurkilgo Udaleko Euskara Teknikaria. Idazkari lanak egingo ditu.

— Maite Arregi, Villabonako Udaleko Euskara Teknikaria.

4.2. Balorazioa. Proiektuak baloratzeko irizpideak eta balioak ondorengoak izango dira:

— Proiektuaren txostena bera: 0-30 puntu artean.

— Azterketa honen antzeko ikerketa bereziak edota lanak egin izana: 0-10 puntu artean.

— Euskal Filologiako ikasketak egiten aritzea: Puntu 1; Magisteritzako Euskal Filologia adarrean diplomatua izatea: 2 puntu; Kazetaritzan lizentziatua: 3 puntu; Euskal Filologian lizentziatua izatea: 5 puntu.

— Txostena defendatzeko egindako elkarrizketa 0-10 puntu artean.

— Ikerlana egiteko aurkezten diren baliabideak ere kontuan hartuko dira (ordenagailu eramangarria, argazki-kamera digitala, autoa, grabagailua, etab.).

*Oharra:* Proiektua pertsona batek baino gehiagok osatutako taldeak aurkezten badu, taldeak arduraduna izendatu beharko du eta baloratzeko garaian, arduradunaren curriculuma, datuak, etab. baloratuko dira.

4.3. Bi hautagaiek puntu kopuru bera eskuratzen badute, zozketa bidez aukeratuko da bekaduna.

4.4. Epaimahaiak egindako proposamena Zizurkilgo Udaleko Alkateari luzatuko zaio eta organo horrek epaimahaiaren proposamena, motibatua behar du izan, oinarri hartuta esleituko du beka.

*5. Beka-saria eta lanerako epea.*

5.1. Ikerlana egiteko beka 3.000 €-koa izango da. Proiektu bakarra sarituko da. Epaimahaiak aurkeztutako proiektuetan lana burutzeko behar adina kalitate edo berme ikusiko ez balu, beka eman gabe utz dezake.

5.2. Bekaren diru-kopurua hiru zatitan ordainduko da: Kopuru osoaren %40 proiektua onartzean, %30 sei hilabetera, egindako lanaren txostena aurkeztu eta epaimahaiak ontzat emandakoan, eta azken %30a lan amaitua entregatzean. Epea bukatu eta aurrez adostu gabeko arrazoirik tarteko izan gabe, ikerlana bukatuta entregatzen ez bada, beka-hartzaileak/hartzaileek, jasotako dirua itzuli egin beharko du/dute.

5.3. Beka-saria nori eman zaion azaroaren 14an jakinaraziko da eta hautatuak/hautatuek 10 eguneko epea izango du/dute ikerlan-bekaren onarpena sinatzeko. Hala egin ezean, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du/dute. Onarpen hori egin ondoren jasoko da beka-saria.

5.4. Ikerlana egiteko urtebeteko epea izango du/dute ikertzaileak/ikertzaileek eta lana erabat bukatuta (formatu elektronikoan, Word programan idatzita eta paperean inprimatutako kopia bat), argazkiak (digitalak) eta grabaketa digitalak entregatu beharko ditu/dituzte. Ikerlan bukatuaren testuak, gutxienez, 75 orrialde estandar (1.800 karakterekoak) izan beharko ditu.

*4. Tribunal y criterios calificativos.*

4.1. El tribunal calificador estará integrado por:

— M.ª Angeles Lazkano Larrañaga, alcalde de Zizurkil.

— Gotzon Aurrekoetxea, Dialectólogo.

— Ainhoa Larrea Unzain, Técnico de Euskara del Ayuntamiento de Zizurkil. Actuará como Secretario.

— Maite Arregi, Técnico de Euskara del Ayuntamiento de Villabona.

4.2. Valoración. Los criterios y valores que se tendrán en cuenta para la valoración de los proyectos serán los siguientes:

— El informe sobre el proyecto: 0-30 puntos.

— Haber realizado estudios o trabajos especiales de este tipo: 0-10 puntos.

— Estar realizando estudios de Filología Vasca: 1 punto; ser diplomado en la rama de Filología Vasca de Magisterio: 2 puntos: Licenciatura de Periodismo: 3 puntos; licenciatura de Filología Vasca: 5 puntos.

— Entrevista realizada para defender el informe: 0-10 puntos.

— También se tendrán en cuenta los medios que se presentar para realizar el estudio (ordenador portátil, cámara digital, coche, grabadora, ...).

*Nota:* Si el proyecto lo presenta un grupo formado por más de una persona, se deberá nombrar un responsable y, a la hora de la valoración, se valorarán el curriculum, datos, etc. del mismo.

4.3. En caso de empate se realizará un sorteo, el cual decidirá el nombre del becario.

4.4. La propuesta que realice el Tribunal será elevada a la Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zizurkil que procederá a adjudicar la beca en base a la propuesta formulada por el Tribunal, la cual en todo caso deberá ser motivada.

*5. Dotación y duración del trabajo.*

5.1. La beca para realizar el estudio será de 3.000 €. Si el tribunal considera que en los proyectos presentados no hay suficiente calidad o garantía para realizar el trabajo, puede declarar desierta la beca.

5.2. La cantidad monetaria de la beca se entregará en tres partes: 40% de la cantidad total a la aceptación del proyecto, 30% a los seis meses, a la presentación del informe del trabajo realizado y a la aceptación por parte del tribunal, y el último 30% a la entrega del trabajo terminado. Si acabado el plazo, y no habiendo razones previamente acordadas, no se entrega el estudio acabado, el beneficiario/los beneficiarios de la beca deberá/deberán entregar las cantidades percibidas.

5.3. El 14 de noviembre se publicará el nombre del ganador de la beca y el ganador/ganadores tendrán un plazo de 10 días para la firma de la aceptación de la beca de estudio. En caso contrario perdería/perderían el derecho a percibir la beca. La cantidad de la beca se percibirá tras dicha aceptación.

5.4. El plazo para realizar el estudio será de un año y deberán entregar el trabajo totalmente acabado (en formato electrónico, escrito en programa Word y una copia impresa en papel), fotografías (digitales) y grabaciones digitales. El texto del estudio terminado deberá tener, por lo menos, 75 páginas estándares (de 1.800 caracteres).

5.5. Ikerlanak sor ditzakeen elkarrizketetako garraio-gastuak bekadunaren/bekadunen kontura izango dira. Telefonozko komunikaziorako, Udaletxea irekita dagoenean Udalak erraztasunak eskainiko dizkio/dizkie bekadunari/bekadunei ikerlana burutzeko kudeaketak egiteko.

*6. Ikerlanaren jabetza.*

6.1. Zizurkilgo Udala izango da ikerlanaren jabe. Udalak beretzat gordetzen du ikerlan hau osorik edo zatika argitaratzeko eskubidea lana entregatzen denetik hasi eta 4 urteko epean. Argitalpen horregatik egileak/egileek ez du/dute aparte egile-eskubiderik kobratuko. Material guztia Zizurkilgo Udalaren esku geldituko da eta berarekin egoki irizten duena egingo du.

6.2. Lau urte horiek igarota Zizurkilgo Udalak argitalpenik egingo ez balu, egileak/egileek bere/beren esku izango du/dute ikerlanarekin egokien deritzona/deritzotena egitea, baina beti ere Zizurkilgo Udalak emandako bekaren aipamena egin beharko du/dute.

*7. Ezinbesteko baldintza.*

Deialdi honetan parte hartzeak, oinarri hauek onartzea dakar.

*Oharra:* Edozein argibide behar izanez gero, deitu 943.692.495 telefonora, bidal 943.693.674 faxera edota idatz kultura@zizurkil.com helbide elektronikora.

5.5. Los gastos de transporte para las entrevistas que pudieran ser necesarias serán por cuenta del becario/de los becarios. Para la comunicación telefónica, el Ayuntamiento ofrecerá facilidades al becario/a los becarios para realizar las gestiones relacionadas con el estudio, cuando el ayuntamiento esté abierto.

*6. Propiedad de los trabajos.*

6.1. El trabajo será propiedad del Ayuntamiento de Zizurkil. El Ayuntamiento se reserva la facultad de proceder a la publicación del trabajo individual o conjuntamente, en el plazo de 4 años desde la entrega del mismo. En caso de publicación no se percibirán los derechos de autor. Todo el material quedará a disposición del Ayuntamiento de Zizurkil y podrá utilizarlo para lo que estime oportuno.

6.2. Si transcurridos dichos 4 años el Ayuntamiento de Zizurkil no realizara ninguna publicación, el autor/los autores podrá/podrán hacer con el estudio lo que estime/estimen oportuno, pero siempre haciendo mención de la beca otorgada por el Ayuntamiento de Zizurkil.

*7. Condición indispensable.*

La participación en la convocatoria presupone para todos los participantes, la total aceptación de estas bases.

*Nota:* Cualquier información o aclaración podrá obtenerse a través del teléfono 943.692.495, el n.º de fax 943.693.674 o en la siguiente dirección de correo electrónico kultura@zizurkil.com.

## ZUMARRAGAKO UDALA

### Udal Bilketa

*Premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena jakinarazteko agertzeko deia.*

Udal Zerga-biltzaileak jakinarazten du: Udal diru-bilketa honetan premiamendu prozedura bat egiten ari dela eranskinean zerrendatzen diren pertsonen aurka. Iragarki honetan adierazitako erreferentzia duten jarduerak jakinarazteko ahaleginak egin dira, baino ez da lortu. Hori dela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Foru Arau Orokorraren 105 artikuluak ezarritakoaren arabera interesatuei dei egiten zaie ager daitezen, jakinarazpena burutzeko.

Jakinarazpena burutzeko interesatuek edo bere ordezkariek hamabost eguneko epean agertu beharko dira, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua agertzen denetik kontatzen hasita. 9:00-14:00 ordutegian, astelehenetik ostiralera, Zumarragako Udal Diru-Bilketa bulegoan (Euskadi enp. 1 - Zumarraga).

Epe hori pasa ondoren interesatua ez balitz agertuko, agerpena egiteko jarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik, jakinarazpena egina dagoela ulertuko da, legearen aurrean izan ditzakeen ondorio guztietarako; eta prozeduraren substantziazioa amaitu arteko diligentzia guztiak jakinarazi zaizkiola ulertuko da, interesatuek agertzeko duten eskubidea kaltetu gabe.

Zumarraga, 2008ko irailaren 24a.—Zergabiltzailea.

(2410) (10875)

## AYUNTAMIENTO DE ZUMARRAGA

### Recaudación Municipal

*Citación de comparecencia para notificación de providencia de apremio.*

El Recaudador Municipal hace saber: Que en esta Oficina de Recaudación Municipal se sigue procedimiento de apremio contra las personas relacionadas en el anexo. Se ha intentado, sin efecto, la notificación de la providencia de apremio cuya referencia se expresa en este anuncio, razón por la que, en cumplimiento de lo dispuesto por el art. 108 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se les cita a los interesados que comparezcan para la práctica de dicha notificación.

Los interesados o sus representantes deberán comparecer para ser notificados en el plazo de quince días naturales contados desde el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de 9,00 a 14,00 horas, de lunes a viernes, en la Oficina de Recaudación Municipal del Ayuntamiento de Zumarraga (Pza. Euskadi 1 - Zumarraga).

Si transcurrido dicho plazo no se hubiese comparecido, la notificación se entenderá producida a todos los efectos legales desde el día siguiente al del vencimiento del plazo sen~alado para comparecer y se les tendrá por notificados de todas las sucesivas diligencias hasta que finalice la sustanciación del procedimiento, sin perjuicio del derecho que les asiste a comparecer.

Zumarraga, a 24 de setiembre de 2008.—El Recaudador.

(2410) (10875)